


## Euskal AEko industria-prezioak % 3,3 igo dira 2022ko otsailean, eta energia elektrikoarenak dira nagusi, % 12,1ekin

2021eko otsailarekin alderatuta, industriako prezioek % 18,7 egin dute gora

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioak % 3,3 igo dira 2022ko otsailean, aurreko hilaren aldean. Otsaileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 18,7koa izan da.

### Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2022ko otsailean, honako sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 12,1 gora), *Kokeriak eta petrolioia fintzea* (% 5,0) eta *Botiken fabrikazioa* (% 3,8). Aitzitik, hil artean prezioetan jaitsierak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Erauzketa-industriak eta Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 2,2 behera); *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 0,6ko jaitsiera) eta *Produktu informatiko, elektronikoa eta optikoen fabrikazioa* (% 0,3 behera).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, aurreko hilaren aldean prezioek izandako aldakuntzek zeinu positiboa izan dute honako sektore hauetan: *Energia* (% 8,0

igo dira prezioak), *Bitarteko ondasunak* (% 1,9) eta *Kontsumo-ondasunak* oro har (% 1,5). Azken hauen igoera *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 1,6ko eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 0,6ko igoerek eragin dute. *Ekipo-ondasunak*, bestalde, % 0,5 jaitsi dira.

insertatabla\_19329

Urte arteko terminoetan, 2022ko otsailean, 2021eko otsailaren aldean, prezio-hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 52,3ko igoera), *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 39,7ko igoera) eta *Industria kimikoa* (% 21,9ko igoera). Kontrako noranzkoan, *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* sektoreko prezioak % 4,3 jaitsi dira, eta *Garraio-materialaren fabrikaziokoak* % 1,6.

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da denentzat: *Energiarenak* % 47,3 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 15,5 eta *Ekipo-ondasunenak* % 3,7. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 6,1 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 6,4 igo direlako, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 3,8.

## **INFORMAZIO OHARRA**

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, otsaileko indizea laginaren % **94,50eko** estaldurarekin kalkulatu da, eta informazioa otsailean zein martxoan jaso da.

---

### **Informazio gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62*